

**BERMEOKO ERAIKIN PUBLIKOAK GARBITZEKO ZERBITZURAKO  
KONTRATAZIO MAHAIAREN BATZAR AKTA**

Bermeoko Urian, Intxausti kaleko batzar gelan, 2016eko irailaren 20an, goizeko 10:00 direnean, batzen dira:

Benito Ibarrolaza Munitiz J<sup>a</sup>, Mahaiburuaren ordezkoa  
Aingeru Astui Zarraga J<sup>a</sup>, Zinegotzia  
Xabier Ortuzar Butron J<sup>a</sup>, Zinegotzia  
Karmele Muñoa Arrigain A<sup>a</sup>, Udaleko Idazkaria  
Edurne Urrutia Uriarte A<sup>a</sup>, Udal Kontuhartzailea  
Igor Santa Eufemia Bordas J<sup>a</sup>, Kontratazio mahaiaren idazkaria

Kontratazioaren helburua: Bermeoko eraikin publikoak garbitzeko zerbitzua

B eta C gutun azalak zabaldu ondoren, dokumentazioa Zerbitzu Saileko teknikaria bideratu zen balorazio tekniko egin zezan.

Zerbitzu Saileko teknikariak bere txostena egin du non aurkeztutako eskaintza ontzat hartu eta hurrengo proposamenak egiten ditu:

- UNI2 Servicios integrales, S.A enpresari *Udal eraikinetako garbiketa zerbitzua* esleitzea, pleguetan jasotako baldintzatan eta **127.307,52 eurotan** (BEZ kanpo), BEZari dagokion kantitatea 26.734,58€-koa da (Guztira: 154.042,10€ urteko).
- Kontratuan jasotzea enpresak aurkeztutako hobekuntza guztiak.
- Enpresari jakinaraztea ahalik eta arinen udal teknikariekin batzartu behar dela hobekuntzen ezarketarekin lotuta egutegi bat finkatzeko.

Honela, Kontratazio Mahaitik "Bermeoko eraikin publikoen garbiketa zerbitzua" UNI2 Servicios integrales, S.A.. enpresari esleitzeko beharrezko errekerimendua bidaltzea eta bere aldeko esleipen proposamena Alkatzetara bideratzea proposatzen da.

Eta gehiago barik, amaitutzat ematen da ekintza hau, goian aipatutako egun eta toki berean, Idazkari legez ziurtatzen dudana.

